

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1988ko Abendua 23, 4. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Gas-naturala naturak ematen digun energi iturria

Duela lau urte gutariko askok gaseoduktoa zela eta ez zela makina bat hitz egin egin zuen. Mendiak puskatzen zihardutela, dena hankaz gora uzten ari zirela... orain, berriz, gaiak gaurkotatuna hartu du:

Zeintzu dira gas-naturalaren abantailak eta desabantailak? Zenbat ordaindu beharko dugu gasa gure etxeetan eduki ahal izateko?

(12 or.)

Bernardo Atxaga, bere azken "Obabakoak" dela eta, modan dagoen idazlea dugu. Arrasaten egon zen, eta bi hitzaldi eman zituen. Idazle bezain hizlari interesgarria dugu.

(19 or.)

ORAIN ETA HEMEN

Aparkalekuak egiteko proiektua: Arrasatek duen aparkaleku arazoa dela eta, egun hauetan zehar residententzako aparkalekuak egiteko posibilitatea aztertzen ari da Udala.

(9.or.)

Ikastolak bidegurutzean: Hilak 16an Ikastolaren Batzar Nagusia bildu zen. Ikastolen Konfederakundea eta Hezkuntza Sailaren arteko desadostasuna dago

(8.or.)

ZORIONAK!!! Laugarren ale honen heldu zaizkigu Gabonak. Ez dugu aukera galdu gura egin diguzuen harrera harrera paregabea eskertzeko eta jai zoriontsuak opatuko Arrasate Prtes egiten dugun guztion partetik. Ondo pasa!!!



Arrasate

Kirolak

JAI EGUN ZORIONTSU ETA DEPORTIBOAK OPA DIZKIZUE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospilatea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011
Famili medikuntzarako zentrua	790500

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	795200
.....	791357
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
Bergara	

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
buruaren helbidea	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zetruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

ABENDUAK 23, OSTIRALA

— Zinea: Alai: "La que vamos a armar"

Novedades (Bergara): "Frenético"

— Guardiako farmaziak: M. Corcuera; Elcano 2

— "Liburua bizi, liburua maitatu": AED elkarteak, udalaren laguntzaz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu ditu. Saiok Monterron Kultur Etxean burutuko dira:

- Ipuin txokoa, Pello Añorgarekin 12etan eta 4etan lau-bost urte bitarteko haurrentzako. 5,30etan sei-zazpi urte bitarteko haurrentzat

- Joxeantonio Ormazabal, nahi nuke jakin... 3.30 eta 5etan 9-10 urte bitarteko haurrentzat.

- Pako Aristi, nahi nuke jakin... 11etan eta 12,30etan 12-13 urtekoentzat.

— Euskal Liburu eta Diska Azoka: goizez 11etatik 2etara; arratsaldez 6,30etatik 9etara.

ABENDUAK 24, LARUNBATA

— Zinea: Alai: "La que vamos a armar"

Novedades (Bergara): Ez dago sesiorik

— Guardiako farmaziak: J. A. Irizar, Erguin 11.

— Euskal liburu eta Diska Azoka: goizez 11etatik 2etara; arratsaldez 5,30etatik 7,30etara.

— Goizeko 10etatik 1arte: Iturripen I. KIROL EGUNA. Pilota, Eskubaloi, Rugby eta Atletismo taldeen eskutik.

— Goizeko 12etan, TXORONPIO Olentzeroaren Arrasateko lagunaren irteera. Herrian zehar ibiliko da, Olentzerorentzako erreka-doak batzen.

— Arratsaldeko 6etan, OLENTZEROREAREN IRTEERA. Ibilbidea: Ferialekua, Maala, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Biteriko Aparkalekua.

— Arratsaldeko 7,30etan, Biteri aparkalekuan, OLENTZEROREN AGURRA; MUTIL DANTZA eta HERRI DANTZA dantzatzeko dira.

ABENDUAK 25, IGANDEA

— Zinea: Alai: "Good morning Vietnam"

Novedades (Bergara): "Frenético"

Zaraia (Aretxabaleta): "Loca academia de policia 5"

— Guardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina 33

ABENDUAK 26, ASTELEHENNA

— Zinea: Alai:

— Guardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena, 3

ABENDUAK 27, ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Vietnen"

— Guardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres

— Arrasateko Udalaren Gasteria-Batzordeak antolaturik "Gazte Enplegua" gaiarekin mahai ingurua. Parte Hartzailea:

- LAB (J.A. Basterra)
- CCOO (J.R. Garay)
- ELA/STV (J. Balanzategi)
- UGT (J.L. Andonegi)
- CONFEBASK
- INEM (Javier Iñiguez del Val)
- Moderatzailea (Tonino Mendi-zabal)

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: ez dago sesiorik

— Guardiako farmazia: A. Azcoaga

ABENDUAK 29, OSTEGUNA

— Zinea: Alai:

— Guardiako farmazia: S. Español, San Andres

ABENDUAK 30, OSTIRALA

— Zinea: Alai:

— Guardiako farmazia: J.A. Irizar, Erguin 11.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Jose Luis Agote

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zاراia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Jose Mari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karme Zuazubiskar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua:

ISSN:

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



AZKENIK EZAGUTU NUEN

Ines Ruiz de Otorra ikustera joan nintzen lehengo egunean. Bere izatearen berri betidanik eduki arren, ez nuen pertsonalki ezagutzen.

Batzuei entzunda nienez, emakume ederra, polita genuen; beste batzuen eritziz, ordea, zaharkitua aurkitzen omen zen. Eta gustuen gainean -erdal atsotitzak alderantziz uste arazi arren- hainbeste idatzi denez gero, Ines lehendik ezagutzen zutenen komentarioak nire begiez kontrastatzeko irrikitan nengoan. Beraz, herkide batek kaLEAN ikusi eta "Inesekin ari dira zure adiskide batzuk" jakin arazi zidanean, haraxe abiatu nintzen, nire haurtzaroko urteetatik mitifikatua neukan andrearekin, azkenik, unetxoren bat emateko asmoz.

Eta, aitortu behar dut, desengainu pixkat eraman nuen. Irudimenak askotan joko maltzurak eragiten dizkigu eta horien atzetik datozen errealitateak bestelakoak izaten dira, sarri. Nire kasuan hala gertatu zen.

Ines zegoen gelara sartu nintzenean, erretrato bat egiten ari zitzaizkion. Ez zen nire presentziaz ohartu; lurtean etzanda zeukaten, eta gorputz txikikoa izan arren, lau pertsonen artean erabiltzen zuten, arreta handiz.

Zoko batetik begira geratu nintzaion. Geldi-geldi nekusan; besoak bular gainean gurutzatuta, belauak erdi tolestuta. Bere osotasunean ageri zitzaidan.

Eta orduan, gainezka egin zidaten, zentzumena dudanez geroztik dama horren gainean nituen oroitzapenek. Parrokiaren ezkeraldekoko jazarlekuetara joaten ginela, han eskuinaldekoko zulo batean, Santa Ines omen zenaren gorpu ustelgabea aurkitzen zela bagenekien arrasatearrok. Elizak inoiz onartu ez zuen santutasuna eskaintzen zion herri-fedeak, Otorra etxeko alaba kuttuna izandakoari.

Bada, hantxe neukan, elizaren sakristian, 1607an hildakoaren gorpu harritia, momifikatua. Haurgintza minetan heriotzea iritsi omen zitzaion emakumearen altzoak haur jaio berriaren aztarnak babes-ten zituen. Besarkada ezilkorra.

Sakristiatik irten eta begirada bat bota nuen lehen aipatutako zulo-rantz. Ez nion historiari jaramonik egin nahi; aitzitik, herriek mitoak zeruraino jaso eta zeharo eze-reztatzeko duten ahalmenak kezkatzen ninduen.

Jose Mari Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGUROAK

GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35
Andoni Conde. 79 60 08

EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

eya

T.B., bideoak, Hi Fi ekipoak,
eta Amstrad ordenadoreak.

Ikus ezazu Grundig aparatu-
tuen aukera guztia.

Aukera handia lanpara, kar-
rril, aplike, foko, mahai-gaine-
ko lanpara etab.etan.

Iturriotz kalea
Tfnoa: 790384



ASEGUROAK

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru
mota guztien informazioa emango di-
zugu, zure beharretarako egokiena zein
den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotar-
rakoak
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Senitartekoen bila

Zaragozarra naiz, baina sustrai zaharrak ditut Arrasaten (eta Araba eta Bizkaiko beste leku batzuetan). Harremanetan jarri nahi nuke nire urruneko senitartekoekin, edota Genealogi aztertzaileekin, familiaren zuhaitz genealogikoaren ikerketan sakondu asmoz.

Amaren aldetik, badut aurreko bat, Rosa M^a Dominica ELKANO RUIZ: Hau —nik daukadan bataio-agiriaren kopiaren arabera— Arrasaten jaio zen 1756ko Irailaren 3an. Honen gurasoak, Manuel Francisco Elkano (Arrasatekoa) eta Josefa Ruiz de Azua (Arabako Marietakoa) izan ziren. Eta bi hauen gurasoak, berriz, Luis Bautista de Elkano eta M^a Francisca de Albizuri (Arrasatekoak), lehenengoarenak; eta Juan Martin Ruiz de Azua (Marietakoa) eta Maria de Zuazketa (Elorriokoa), bigarrenarenak. Idatzi, mesedez, helbide honetara: Ernesto Sánchez. Apartado 411. 50080-ZARAGOZA (Mesedez, gaztelaniaz idatzi).

Ernesto Sanchez

Kaixo:

Eguerdiko ordu bata eta arratsaldeko 6ak aldera zergatik egoten dira Okorotegi parean hasi eta Gure-leku edo Muxibarrerainoko kotxe ilara luzeak aurrera jarraitu ezinka?

Okorotegi ondoko zorioneko semaforoa pasatu, eta Eresi parera orduko berriro geldit; Atxarebaletara edo Bergara aldera hartzeko bidegurutzera ailegatu orduko beste bost minutu.

Nork ez du eman ordu laurdenetik gora Munarretik bidegurutze horretaraino ailegatzeko? Eta zergatik?

Ba, Okorotegiko semaforoan bi arrazoiengatik:

-Fagorrekoko SAT-ekoak potrohaundi batzuk direlako eta kotxea askotan bigarren ilaran traban uzten dutelako.

- Bertan aparkaleku batzuk sobran daudelako.

Chelsi eta Altamira aldera hartu nahi duten bi kotxe segidan jartzen badira eta kontrako norabidetik kotxeak badatoz... izorra hadi! Hurrengo semaforaldira arte zain egon behar!

Aurrera jarraitu nahi duten kotxeek, ezkerraldera joan nahi duten bi horien zai. Eguneroko kontua.

Aldatuko litzateke neurri baten oraingo egoera, nik uste, semaforo ondoko 4 aparkaleku kenduko balira eta SAT-ekoek kontu gehiago balute.

Aipatu dudan beste bidegurutzeari dagokionez, beste hainbeste gertatzen da. Lasa aseguruak dagoeneko alde hartan dauden aparkaleku apurrak kenduko balira ere, batere kalterik ez.

Jakin izan dudanez, ez naiz kexa hau egin duen lehena, eta nire barrenerako pentsatzen ari naiz dagoeneko ez ote dion Udaletxeak arazoari soluzio bidea topatu: Normalean hortik pasatzen direnak aspertuz joango dira eta beste non-baitetik joango dira. Edo?

Fermin A.

ARRASATE EUSKALDUNA ZURE ESKU DAGO !

Urte amaierarekin batera datozkigu berriro ere Santamasak, Txorontpio, Olentzero... Badute ospakizun hauek sustrai sakonik gure herrian: gure herria izan denaren ispilu izan nahi dute, euskal kulturaren adierazgarriak.

Euskal kultura esaten dugu, izan ere, euskara bait da kulturaren arlo guztien sustraia eta izateko arrazoia ematen dena. Zer izango litzateke Euskal Folklorearen euskara gabe? Folklorekeria baino zerbait gehiago bai?

Hari honetatik jarraituz, beste datu batzuk: gero eta gutxiago dira euskararen kontra altxatzen diren aho-tsak, gero eta jende gehiagok omen du euskararen aldeko jarrera positiboa. Zertan gauzatzen da, ordea, euskararen aldeko jarrera positibo hori? Arrasaten aurten egindako inkestan ikus daitekeenez euskararen erabilera erreala %10aren inguruan dabil.

Egoera honi buelta emateko, euskaraz bizi nahi dugunok eta hori lortu ahal izateko borrokatzeko prest gaude-nok bildu egin behar dugu. Euskararen aldeko jarrera positiboa daukatena, besterik gabe, jarrai bezate jarrera ona izaten. Euskararen aldeko herri mugimenduak, jarrera positiboa izateaz gain, eragiteko, laguntzeko, zirikatzeko prest dagoen jendea behar du, konprometitu nahi duen jendea.

AEDk, zer esanik ez, atek zabalik dauzka euskararen normalizazioaren aldeko lanetan partehartu nahi duen guztiarentzat. Lanik ez da falta eta elkar-turik gogorrago izango gara.

ZEUK ERE ZERBAIT EGIN DEZAKEZU. ETORRI!

AED Elkarte


TALLERES MECA, S. A.K

Gabon-jai zoriontsuak opa dizkizue

zuei, bere bezero guztiei; eta azken aukera paregabea probatzera gonbidatzen zaituzte.

Renault 19.

Indar garailea.



Zure zain gaude gure instalazio zabaletan, etengabe prestatutako pertsonal eta baliabide sofistikatu berriztuekin, konponketak egitean zerbitzurik osoena eta kalitatezkoena emateko, urtebeteko garantiarekin bai eskulanean bai piezatan.



RENAULTek gehiago ematen dizu

TALLERES MECA, S. A. n

Araba Etorbidea, z / g


Tfnoa: 79 59 99

BETE GABONEZ
ZURE ETXEA

Zinak!

GEROSKI

Zein eritzi duzu paretetan jartzen diren pintada eta kartelei buruz?



— Jesus Vitoria
(jubilatua)

Zikinkeria handia direla-uste dut. Herria garbi edukitzeko kartelak eta, ez lirasteke jarri behar, baina lurrera botatzen direnekin ere kontu izan behar genuke herria garbi edukitzeko.



— Rufina Mendieta.
(Etxekoandrea)

Oso gaizki, dena zikin-zikin uzten dute; garbitu orduko berriro dena lehen bezala dago. Nik uste dut leku apropos bat behar lukeela egon kartelak eta jaritzeko.




— Fermin Madinabeitia
(Udaletxeko langilea)

Oso ondo ikusten ditut. Medioak ez dituzten organizazioek, egunkarietan eta, iragarkiak ipintzeko dirurik ez dutenek, beren eskaerak kalean kartelak ipiniz egin behar dituzte.



— Jokin Iturriotz
(Auto-eskolako irakaslea)

Kartelak ondo, pintadak ez hain ondo. Pintadek paretak izorratzen dituzte, aldiz kartelak gero ken daitezke. Dena den, pintadak ere egin behar badira egin behar dira. Besterik ezin denean, ahal denari heldu behar zaio.



**URTE BERRI ZORIONTSU
ETA BENETAN EUSKALDUNTSU !!**

ERDU Euskaltegia - A.E.K

M MUGARRI 

**Eguberri on eta urte zoriontsua
opa dizue**

Arabako Etorbidea, z/g
Tfnoak: 79 07 44 - 79 07 54

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**


Gipuzkoa etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Ikastolak bidegurutzean

Joan den ostiralean, hilak 16, Eskola Politeknikoko batzar aretoan Arrasate Ikastolaren Batzar Nagusia bildu zen. Mahaian Kepa

tikoek hitzarmen hau legealdi honetan burutu nahi izan arren, bidea luzea izango da Salaberriaren ustetan, "harik eta Euskal Eskola

era ekonomiko desberdinak sortuko direlarik. Horregatik, bada, ondo neurtu beharko dira aldagai guztiak edozein urrats eman aurretik. Kepa Salaberriaren hitzetan, hilabete edo, asko jota, bi barru, beste Batzar Nagusi berezi bat egin beharko da "erabaki garrantzitsuak hartzeko".



Ikastolako langileen egoera definitu gabe gelditzen da

Salaberria, lehendakaria, Edurne Erauskin, zuzendaria, eta Aitor Antxia, irakasleen ordezkaria.

Kepa Salaberriak aitortu zuenez, une honetan Arrasateko Ikastolak 7.249.638 pezetatoko defizita dauka. Defizit hau oraingoz ez ei da kezagarria, beraz, maila horretan ikastolak ez du neurri berezirik hartuko.

Ikastolen konfederakundea eta Hezkuntza Sailaren arteko negoziazioez, alde bien artean sortutako desadostasunak aipatu ziren. Poli-

Publikoaren Lege onargarria lortzen dugun arte". Dena dela, hemengo ikastolari, gainontzekoei bezala, hiru alternatiba aurkezten zaizkio egoera berri honetan:

1. Akordioa ez sinatzea, orain arte bezala segituz.
2. Akordioa sinatzea, ondarea emanaz.
3. Sinatzea, baina ondarea eman barik.

Soluzio bakoitzak subentzio bide desberdinak izango ditu, ego-

Entzuleen artetik galdera gutxi egin zen baina, ikastolako langileen egoera definitugabeak sortzen duen urduritasuna agertu zen nolabait.

Azkenik, hona hemen Batzorde Zuzentzailerako ordezkari berrien izenak: Fatima Aranzabal, M. Luisa Llona eta Amaia Pagaldai, langileen aldetik eta Jesus Mari Garmendia, Jose Ramon Barbarias eta Joxe Murgia, gurasoen partetik. Kontu aztertzaile berriak, ostera, Edurne Arrizabalaga, Jose Ramon Elorza eta Jose Ramon Gorosabel.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak.

**INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN
DITUGU ZURE EROSKETAK!!**

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



Gaiak: Aseguroak
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Informatika
Finantzaketa

**BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)**
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Aparkalekuak egiteko proiektua Arrasaten

Arrasatek duen aparkaleku arazoa dela eta, egun hauetan zehar residenteentzako aparkalekuak egiteko posibilitatea aztertzen ari da Udala.

Hiru baldintza izan behar dira kontutan: demanda, egon bada-goela, baina lekurik ez kotxea uzteko; aparkamendu hauek egiteko posibilitate teknikoak, eta azkenik, jendeak honen aurrean duen postura. Aparkalekuak egiterakoan Udalak bi aukera ditu, bata enpresa bati berauen erakuntza eta esplotazioaren kontzesioa ematea, eta bestea, berak bertekari gisa jokatzea, bigarren aukera hau aproposagoa ikusten delarik. Bigarren bide honetatik jotzea erabaki ondoren, hiru eratarata esplota daitezke aparkaleku hauek; lehena, enpresa bati emanez aparkalekuak egiteko eta bezeroak lortzeko ardura, Udalak bitartekari gisa jokatuko lukeelarik, kasu honetan aparkalekuak egin ondoren bukatuko litzateke enpresaren zeregina; bigarrena, kooperatibak sortuz, kooperatiba hauen gain egongo litzatekeelarik aparkalekuak egitearen ardura, eta beraz,

baliabide teknikoen eta pertsonalaren kontratazioa; eta hirugarren bat kooperatibak eginez eta ondoren enpresa bati emanez aparkalekuak egitearen ardura. Kasu hau merkeena gertatzen dela adierazi



Arrasaten aparkalekuen arazoa larria da

digu Udaleko injineru den Urdangarinek. Udalak konkurtsu bat irekiko du plazan adjudikaziorako. Aparkaleku hauek lortzeko baldintza batzuk bete behar dituzte bizilagunek: bat, aparkamenduari dagokion eremuan bizitzea eta bestea plazekin ez espekulatzea.

Aparkaleku hauen kontzesioa 50 urtetakoa litzateke, ondoren Udalaren eskutara itzuliko lirate-

keelarik aparkalekuak. Lehen fasean Obenerreka eta Cordoba y Oro enparantzan kokaturik egongo lirateke. ■

Arrasatetik, lau autobus Herrerara

Urtero egiten den Herrerako martxaren azken edizioa igandean izan zen, eta Mondragoetik lau autobus irten ziren.

Guztira, Euskal Herriko hainbat lekutatik irtendako 10.000ren bat lagun bildu ziren martxa honetan. Partehartzailen helburua Herrerako espetxean dauden preso euskaldunei adorea ematea eta apoioa erakustea da.

Iaz bezala, konboia ez zen iritsi bere helmugara. Kartzelatik 8 kilometrotara jarritako azken kontrolak autobus eta kotxe partikularrak handik aurrera pasatzea oztopatu zuen.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997

ARRASATE

Etnografia Erakusketa Monterronen

Abenduaren 20tik Urtarilaren 10arte, Monteroneko Jauregian Etnografia Erakusketa izango da. Lanegunetan, arratsalde 6,30etatik 8,30etara, eta Larunbata eta Jaiegunetan, goizez 12etatik 2etara, eta arratsalde 6,30etatik 8,30etara bisitatzeko aukera izango dute interesatuek.

"Erakusketa hau, gu bizi gareneko geografiaren etnia indoeuropear eta Euskaldunaren herri-jakinduriaren agerpide zabalaren esenplu bikaina dugu.

Artea, herri-jakintza, sasoi bakoitzeko eta eguneroko bizitzatik sortutako arazoan aurrez aurre, gizonak behar duen arnasaren ispilu dira" (Jose Ulibarrenak).

Erakusketa, CLP-LKAK antolatutako "Kultur Bideetan" izeneko zirku kultural barruan dago.

S. Frantzisko Xabier ikastolak anagrama berria

Jadanik ezaguna da S. Frantzisko Xabier ikastolak zein anagrama izango duen aurrerantzean. Berau aukeratzeko lehiaketarako deia luzatu zuen; bertara 72 lan aurkeztu ziren, eta hauetatik Juan Jose Uriarte Muraga izan da irabazlea, epaimahaia Ikastolako Batzorde Zuzentzailea izan zelarik.

San Frantzisko Xabier Ikastolak bere esker ona adierazi nahi die parte hartu zuten guztiei.

Haratusteak jaietako iragarkia lehiaketarako deialdia

Hurrengo Haratusteak jaietarako iragarria aukeratzeko kartel-lehiaketarako deialdia zabaldu da.

Lehiketa honetan Arrasateko edozein pertsonak har dezake parte. Kartelaren neurriak 50 bider 65 zentimetrokoak izango dira, eta teknika librekoa izango da. Informazio gehiago udaletxean eskura daiteke.

Santamaña auzoko zahar egoitza aurrera

Aste honetan zehar erabaki da, Udalean, nahiko zer esan sortu duen Santamaña auzoko zahar egoitza egokitzeko lanak hastea. Gai honek nahiko arazo sortu zuen Azaroan egin zen pleno batean.

Zahar egoitza, lehengo eskolatan kokatuko da.



Santo Tomasetako feria arrakastatsua

Arrakasta handiz burutu zen Santo Tomasetako feria. Jende ugari hurbildu zen Arrasateko ostegun goizean egin zen Santo Tomasetako feriarara.

Feria egiten zen bitartean, Zalbibarko frontoian harrijasotzaileak ikusi ahal izan genituen; Perurenak burutu zuen saioan Arrasateko harria bi bider jaso zuen



Laster bideoteka zabalduko

Hemendik gutxira arrasatearrok Monterronen ezarriko den bideotekaz gozatzeko aukera izango dugu.

Beharrezko tresneria jartzeaz Aranzabal etxeok arduratuko dira, instalakuntza, gutxi gorabehera, miloi terdi kostatuko delarik.

Datorren urtearen hasieran bideoteka martxan egotea espero da.

ARRASATE PRESS
Bidal ieazkiguzu zure kolaborazioak

ITURRIOTZ TABERNA
Festa zoriontsuak opa dizkizue
Iturriotz kalea, 7 Tfnoa: 79 16 04

ERAÑA AHOLKULARITZA
OROTARAKO ASEGUROAK
Kontzeziño kalea 4 - behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Izen propioak

Anton Zumalde, SUDC-eko lehendakari berria, bere karguaren jabe egin da, SUDC-ek joan den ostiralean izan zuen batzar orokorrean.

Maria Luisa Maiztegi, Margolari oñatiarrak, bere herriko Kultur Etxean oso erakusketa polita egin du bere azken oleoak erakutsiz. Jende dexente joan da Kultur Etxeko erakusketa ikustera eta, entzun dugunez, hainbat obra saldu ditu.

Simon Martinez Fernandez de Arroiabe: udal zinegotzi eta HBko bozeramaileak azkenengo bi hilabete hauetan utziak ditu udal eginkizunak, bere osasun egoera dela eta. Antza denez udal txean ordezkatua izango da.

Blanka Jauregi, hogeitalau urtetako sikologa, izango da hemendik aurrera Arrasateko Udaleko Gazte-Animatzailea, Udalak urtebetez kontratatu ondoren.

Josemari Velez de Mendi-zabal, Arrasate Presseko kolaboratzaileak, "Amuarrantza" izeneko bere liburu berria aurkeztuko du ostiralean, hilak 23, arratsaldeko 7,30etan Donostiako Kultur Aretoan (Arrasate kalea, 12). Ekitaldi honetan liburuaren hitzaurregilea den Carlos Garaikoetxeak ere hartuko du parte.

"Bai Gazteriari" Abaroan

Lehenik Eusko Irratia izan bazen, orain Loiolako Herri Irratiaren txanda izan da. Talde kristauean diharduten bederatzi gazte bildu



Gaztetxea bihurtu da aztergai irratsaioetan

ziren Abaroan egin zen "Bai Gazteriari" irratsaioa. Gonbidapena Mondragoe mailan dabilzan gazte talde guztiei luzatu bazitzairen ere beste inor ez zen agertu.

Ordubete luzez aritu ziren, erdara ederrean, moderatzailea (Txema Urrutia) eta gazteak. Hauek, oraingo Gaztetxearen esparrua zabaltzeko deialdi zabal baten beharra aldarrikatuz amaitu zuten, Mondragoeko gazte guztiek proiektu bateratu baten inguruan lan egin dezaten.

Kanguruak Arrasaten?

Dena joan den Maiatzean hasi zen, Iruñean. Urtebete pasatu ondoren horrelako enpresa bat ateratzea posible zen ala ez aztertzen, hainbat emekume ezkonduk "Canguros Navarra" enpresa sortu zuen. Enpresa honek umezainak hartzen ditu eta dagoeneko 600en bat baditu zerrendan.

Gutxienez 18 urte izan behar zerrendan sartu ahal izateko eta umeak, gaixoak edo zaharrak zaintzen esperientziarik ez duen neskarik ez dute onartzen. Ezta mutilik ere, oraingoz.

Zerbitzu honek sekulako arrakasta izan du eta honez gero hasi dira pentsatzen beste leku batzuetara ere zabaltzeko, Arrasate tar-tean.

MENDI KAFETEGIA

Zorionak opa dizkizue Arrasatearroi !!

Madalena, 4. Tfnoa: 792054

ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI,8

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Gas-naturala, naturak ematen digun energi iturria

Duela lau urte gutariko askok gaseoduktoa zela eta ez zela makina bat hitz egin zuen. Mendiak puskatzen zihardute-la, dena hankaz gora uzten ari zirela... Gauza denekin gertatzen den bezala, gai hark interesa galdu zuen eta dagoeneko inor gutxi oroitzen da orduko lan haietaz.

Lan hauekin ados egon ala ez, orduan egin ziren lanen ondorio gisa gas-naturala gure etxeetan edukitzeko aukera dugu gaur.

Azken hilabete honetan etxeetako bizilagunen batzarretan, sarri sortu den gaia da hau baina sarritan ere inork gutxik jakin izan du han planteatu diren galderei erantzun egoki eta zehatza ematen.

Zeintzuk dira gas-naturalaren abantailak ala desabantailak?

Zenbat ordaindu beharko dugu gasa gure etxeetan eduki ahal izateko?

Lan batzuren ondorioa


Gure bailarako enpresek azken lau urtetik hona gas-naturala erabiltzen dute, energi iturri gisa, gas hau mugaraino dihoan gaseoduktetik lortzen dutelarik. Euskal Herrian, aipatutako gaseoduktoa Eusko Gobernuak eraiki zuen "Ente

Vasco de Energia" delakoaren bidez.

Gasa bageneukala ikusirik, gasaren erabilpena etxebizitza eta merkataritzara zabaltea erabaki zen. Honetarako

la prozesu baten ondorioa, eta zuzenean heltzen zaigu gas-poltsatetik gure etxeetara.

Beste errekinekin alderatuz abantaila batzuk eskaini ditzake.



"Natur-gas" enpresa sortu zen, Eusko Gobernuaren babesean sortua baina edozein kasutan S.A.

Deba Garaira (Aretxabaleta, Bergara eta Arrasatera) eta Bilbo inguruko herrietara zabalduko da erabilpen mota hau lehenbizi.

Abantailak eta desabantailak

Esan beharra dago gas-naturala, naturak eskaintzen digun errekin bat dela; beraz, ez da petrolio edo butanoa beza-

— Ez da toxikoa,

— Ez da beste errekinak bezain kutsakorra, ikatza edo gosoleoarekin gonbaratzen badugu adibidez

— Aireak baino gutxiago pisatzean gorantz ihes egiten du, istripu arriskuak nabarmen murriztuz.

— Ura eta argiindarra heltzen zaizkigun era berean helduko zaigu etxeetara, bonbonaren zain egon beharrik ez dugularik.

Baina zenbat sufrituko du gure poltsikoak?

Gasa etxean eduki ala ez, norberak egin behar duen aukera da, eraikuntza bakoitzeko gutxienez sei etxebizitzak eskatu behar dutelarik gasa lortu ahal izateko.

Etxebizitza gas-sarearekin lotzeak 7.476 pta. balio du, honetaz gain instalazioa ere egin behar delarik, eta hau izango da gehien kostako zaiguna. Instalazioa batz bestea 85.000 pta.koa da etxebizitzako, eraikuntzan dauden etxebizitzak

eta gasa eskatu duten biztanleen arabera aldatuko delarik. Diru honekin etxeetako barne egokitzapena, aparailuen egokitzea eta haizea berrizta dadin egin behar den lana ordaintzen da.


Hiru urteko epea

Herrian zehar, gasaren banaketa bi epetan banaturik dago. Lehen epean Uribe auzotik Herri erdirainokoa izango

litzateke. Gune hau hiru hilabetez bukatzea espero da, hila-bete honetan bertan Erguin kaleko bizilagunek gasa izango dutelarik.

Bigarren gunea herriaren beste zati guztia izango litzateke eta hau hiru urtetan burutuko da.

Beraz, arrasatearrok badugu zerbitzu berri hau izateko aukera. Honetaz baliatu ala ez norberak ikusiko du.



KILL-KOLO

Ferrerias 21 Tfnoa.797006
ARRASATE

**Urrezko bitxiak
18 kilatetako legezko urrea**

Erdiko kale 23
Tfnoa: 792047

NAROKI

ANGIOLILLOREN URKAMENDIA: Ahozko bertsioa



Ez da oraindik urte gehiegi Angiolilloren urkamendia zuzenean ikusi zuten azkenengoak hil zirela. Hona hemen Hilari Gantxerri, Osintxuko Eguzkitza baserrikoak, trantsu kontatu ziguna, berak bere amandari entzuna. Ez harritu batzuek ez badatoz bat lehen esandakoarekin, gauzak aldatuz joaten bait dira denborarekin, ahoz aho pasatzerakoan.

«Nere amandria bisabuela zan Larraña Handiko alabia, Bergako Larraña Handiko alabia, eta Larraña Handitik orduan be, hamen guretan ez ei zan saltzen esneik, pentsau bez, baiña Larraña Handitik tta bai. Marmitta eskuan erute i-ban. Ezaban erungo e esne asko, baiña egunian egunian esnekin kalea bera. Da berak eztakitt hamazazpi ala hemezortzi urte, eta esan i eben e, esne bezeruak eta, hola jun zienian e, esan i eben: «Gaur e, badakizu gaur ero biar ze funziño ero ze ikusmira daon Bergaan?» «Da ze dao ba?» «Urkamendixa» «Ene, urkamendixa dao? Ta bai. «Ze ordutan?» «Atsaldian». «Etxian lagatzen boste neuk pe etorri biot».

Da esan i otxen etxian, da esan i otxen: «Kontuz ibilli hari gero, batzui ez ei jakone ondo jausten da». «Ez jun biot pa»

Eztaitt bera bakarrik izan zan ero, bera bai beintzet. Goiko plazan, juzgauan aurrian, altura handi baten kolokauta ei euan silloi bat, silloe edar bat eta haraxe ekarri ei eben kotxia landuak, horrek len e kotxe brillodun horrek, kotxe landuan, da jesuitten jantzixa jantzita, da danen publikuan abadia plantau ei jakon konfesau ero, beran asoluziñua emun ero, eitteko ero, ta. Ba e, euzkan sekretuak, bueno, euzkan gauzak ta damutasuna ein dda oingo moduan esplikau i otxan, da, berak zela Jangoikuai kontua emun bi otxan, abariak esan i otxan, da, ezetz, ezetz. Haura baiño len bera joiala bai, eta berak emungo otxala jangoikuai kontua.

Ez bereinkatu, ez konbertidu, ezetara be. Ta halaxe jaso ta plantau i eben. Esplikaziñuak eta bere orduak danak aillegau zienian bat ez i euan iñun, dana begi bista guztia tellaturaño ixota jentia. Baiña ze jente i euan... . Da ordenia emu otxanian, borrreruak tornuan uela ipiñi leptik, tornuai emun buelta, zela itto-ben. Hauraxe i zan urkamendixa. Zela miiña parrarian bera etara-ban. Ta sekula etxakola damutu. Ba, ei zan, ba, esate-ban harek, sei hiddakua. Da gaiña gizon haundixa.»

Elhuyar taldekoen kolaborazioa

Zenbakitze-Sistemak

Giza historian betidanik erabili izan dira zenbakiak. Zebakitze-sistemak aldatuz joan badira ere, azalean jasan dute aldakuntza, ez funtsean. Hortaz, esan daiteke funtsean bi zenbakitze-sistema erabili ohi direla bereziki, hots, posizionala eta ez-posizionala. Lehenengo motakoak, ikur ezagun batzuren posizioak aldatuz lortzen dira. Bigarren motakoak ikur desberdinak erabiliz lortzen dira; zenbaki erromatarak, hain zuzen ere, azken mota honetakoak dira.

Argi dago beraz, gaur egun gure bizitza arruntean erabiltzen dugun zenbakitze-sistema posizionala dela. Har ditzagun 0 eta 5 ikurrak, 05 ipiniz "bost" zenbakia lortzen dugu eta 50 ipiniz "berrogeitamar" zenbakia.


Zenbaki posizionalak ez-posizionalak baino askoz ere erosoagoak direnez eragiketarik egin ahal izateko esparru guztietan erabiltzen dira, osteraz ez-posizionalak desagertuz joan dira.

Sistema posizional ezagunena "sistema hamartarra" da, hau da, hamar ikur eta oinarria hamarrekota dituena. Oinarria hamarrekota dela esateak haxe esan nahi du: zenbaki baten posizioa aldatzeak hamarrekota biderkatu edo zatitu behar dela supozatzen du: gogora gaitezen arestiko adibidean 05 zenbakitik 50 zenbakira igotzerakoan 5 zenbakia posizio bat higitu dugula ezker aldera, hots 10ekin biderkatu dugula.

Halere, oinarria hamartarra duen zenbakitze-sistema ez da bakarra sistema posizionalen artean nahiz eta erabiliena izan. Eta zenbakitze-sistema hamartarra izan beharrean bitarra, lautarra edota hamaseitarra izango balitz, zer gertatuko litzateke? Ba beste zenbaki-sistema batzuetan arituko ginatkeela. Zergatik, orduan, sistema hamartarra eta ez beste bat? Arrazoi sinplea da: askoz erosoago eta sinpleago bait da 10ekin biderkatzea beste edozein zenbakirekin baino.

Ordenadoreetan, aldiz, beste zenbakitze-sistema erabiltzen da: sistema bitarra. Ordenadoreak bi egoera, soilik, identifikatzen dituzte (ON eta OFF) zenbakitze-sistema egokitu beharra izan dute fabrikatzaileek.

Joserra Aizpurua



**Zur
Lur**

JOSTAILUAK
MODELISMOA
IRRATIKONTROLA


Erdiko Kale 19
ARRASATE
Tfnoa: 791787

JESUS ELKORO

ETXEKO TRESNAK
Garibai, 10
Tfnoa: 791886 ARRASATE

HERRIGINTZAN

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959	1988
Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezki


...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,
Lan Kide Aurrezki
"Euskadiko Kutxa" da**



Euskadiko Kutxa



GABONETAN...

EUSKARAZKO OPARIAK

1.- EUSKARAZKO:

- Jostailu didaktikoak
- Liburuak
- Diskak
- Kaxeteak
- ...

GURE AHOLKUA: EROS ITZAZU EUSKARAZKO OPARIAK

- Zeure seme-alabak euskaldun legez hezteko.
- Euskal kultura euskaraz eta gertutik ezagutzeko.
- Zuk zeuk ere, euskaraz bizi behar duzulako.
- Geurea eta hurbilekoa ezagutzetik hasteko.
- Lagun eta adiskideei ere, geure-geurea dena eskaintzeko.

Arrasateko Udala
Euskara Batzardea

EUSKARA ZERBITZUA

“Arazorik larriena, zera da: lan-merkatuan ez dagoela hartu ahal izateko profesional kualifikaturik. 30 urtetik gorako profesional gutxi dago gure programei aurre egiteko behar besteko ezagupen informatikoak dituenik”

(Jose Luis Larrañaga, Aretxabaletako “Lantek” lantegiko gerenteak, DV egunkarian)

“Abiadura handiko trenak segurtasun handiko ibilbideak behar ditu eta euskal orografiak, Gasteiz eta Donostia arteko bidean batipat, trazaketa-aldakuntzarako oztopo garrantzitsuak planteatzen ditu. Irurtzuketan Iruneraino doan ibilbidea akaso gomen-dagarriagoa litzateke, teknikoki.”

(Gillen Azkoaga, Donostiako Europar Ikasketa Zentruko teknikariak, DV egunkarian)


“Oso polita da esatea EGik, Jarraik, Gazteria Sozialistak, Gazteria Gorriak, etab.ek presentzia dutela Arrasaten, baina non daude gaur? Zergatik ez dira etorri?”

(Txema Urrutia, Loiolako Herri Irratiko esatariak, “Bai Gazteriar” irratsaioa amaitutakoan)

“Y” delakoari buruzko azterketa 1989aren hasieran egongo da prest. RENFEk trazaketa hori onartu bezain laster, ekingo zaio proiektuaren idazketari. Tramite honek urtebete iraungo du, eta bete edo gauzatzek lau zapabost urte. Beraz, 1995aren amaierarako proiektua lehen linea funtzionamenduan egon liteke, Gasteiz eta Bilbo elkarlotzen dituen izango delarik, ziur aski.”

(Enrique Antolin, Euskal Gobernuako Garraio Sailburuak DV egunkarian)

Zein da Eskoriatzako irakasle eskolaren etorkizuna?



Eskoritzako Irakasle Eskolaren helburua, sortu zenetik, irakasleak prestatzea izan da, eta hori, euskaraz. Baina denbora pasa ahala, erantzuna eskatzen duten behar berriak sortu dira.

Kasu batzuetan, behar berri hauek gure ikasketa-planetan integratuta daude edo horretan ari gara; beste kesu batzuetan, oraindik bideratu gabe. Eta zeintzuk dira behar edo arazo berri horiek, gainera gure ustez, lanpostu berriak sortu ditzaketeenak? Euskalduntze-prozesuan euskararen animazioarako iharduketak, denbora libre edo aisialdirako heziketa, ludotekariak prestatzea, informatika irakaskuntzan aplikatzea, liburutegien animazioarako iharduketak, ikusentzunezko eta beste baliabide didaktiko batzuetarako prestakuntza, ingurunea ezagutu eta beronetaz baliatzeko heziketa, kultur etxeen dinamizazioa, kontsumitzailearen heziketa, kale-hezitzaileak etab.

Gurea bezalako gizarte batek, maila ekonomiko handia lortu duelarik, bere garapen kulturala planteatu behar du, eta zerbitzu berriak sortu gizabanakoaren garapenerako. Eta irakasle eskolari dagokio zerbitzu horietan monitore, irakasle edo hezitzaile izango direnen prestakuntza.

Beraz, Irakasle Eskolatik irten ondoren, maisu-andereñoek eskoletako irakaskuntza normalera jo lezakete, orain arte bezalatsu; edo eta Udal, Mankomunitate edo beste erakunde batzuek (kooperatibek, enpresek...) eragin litzaketen zerbitzu berrietan sartu; edo autonomoki nolabaiteko zerbitzu-kooperatibak sortzea litzateke beste irtenbide bat, haurren garapen-prozesua profesionalki ezagutzen dutenez, behar berri hauek bideratzeko gai bait dira.

Guztiori interesatzen zaigu gizakiak produzitzea, baita Irakasle Eskolari ere; baina ezin dugu ahaztu garapen integralaren dimentsio bat gehiago bakarrik dela produkzioa.

Juanjo Otaño

(Eskoriatzako Irakasle Eskorako Zuzendaria)



**BILBO
ASEGUROAK**

Enrique Mendieta Ugarte
Agentea

Kontzeziño kalea, 6 behea
Tfnoa: 798677


ARRASATE

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNI-KETA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

“ Arrasate 88 ” LEHIAKETETAN SARITUAK

IPUINA

- SARIA: JULEN ARRIOLABENGOA “ JUANIKOTE BIGARREN”
- AKZESITA: JON ANDUEZA “ TONBA, TONBA, TONBA ”

POESIA

- EZ DAGO LEHEN SARIRIK
- AKZESITak: - LEIRE BELOKI “ HASIERATIK BUKAERARAINO ”
- ANDONI URZELAI “ EZEZAGUNARIK”

BERTSO PAPERAK

- SARIA: - RIKARDO GONZALEZ DE DURANA
- “TXERREN ADISKIDE EZKONDU AURREKO DESPEDIDAN ”
- AKZESITak: - JESUS MARI ETXEZARRETA “Izazpi”
- MARKEL ARIZMENDI “Gaixo Malerusa”

BIDEOA

- LAN SARITURIK EZ DAGO

ARGAZIAK

- LAN SARITURIK EZ DAGO
- AKZESITA: JAIONE LASANTA “Egunar”

KOMIKIA

- SARIA: ALBERTO EGUZKIZA “Erensuge”
- AKZESITA: JAIONE ELKORO
- MAITE MARTINEZ DE ARENAZA
- LIHER LARREA
- MARIO EGUES

ITZULPEN LABURRAK

- SARIA: MAIDER ETXAIDE “Gene-teknologia mikroorganismoetan
- AKZESITA: A. SAGARNA “Geneak merkatu medikora hedu dira”
- A. SAGARNA “Injineruek Biologian jarriak dituzte begiak”

Bernardo Atxagak: "Ihesa atsegin dut"

Joan zen larunbatean Bernardo Atxaga Arrasaten izan zen. Bi hitzaldi eman zituen. Lehenengoan, 15urte inguruko gazteek galderak bota zizkioten, eta elkarrizketa hau saio haren laburpena dugu. Agertzen diren galderak, beraz, ez dira gureak. Guk egin duguna aukeratzea besterik ez da izan.

Sinboloez, fatalitateaz, ihesaz... hainbat ipuin eta poema tartekatuz mintzatu zen Bernardo. Saiatu gara, laburtu beharra dela eta, gauzak kontestutik kanpo ez agertzeko.

—Arrasate Press: Zergatik hasi zinen idazten?

—Bernardo: "Zergatik" da munduan dagoen galderarik zailena, beti da berandu ailegatzen den galdera. Hamabost urte horretan ibili eta gero, nik ez dakit zergatik hasi nintzen, ahaztu egin zait. Behin hasi nintzen gaztetan, basotik atera nintzen eta biaje bati ekin nion. Ez dakit zergatik, beharbada idazteko arrazoietako bat izan liteke... gazte horrek ez duela ikusten bere inguruan gustatzen zaion ezer, edo ez dela egokitzen jendearekin. Baina gaur egun, ez dakit.

—Zergatik Bernardo Atxaga?

—Gaztea nintzela amets asko egiten nituen, eta iruditzen zitzaidan idazle ospetsuek beti ezizenez firmitzen zutelara. Nire izena eskritore ospetsua izateko, iruditzen zitzaidan ez zela egokia. Eta zergatik aukeratu nuen Bernardo? Ba, eskolan nengoela bazegoen mutil bat asko apreziatzen nuen, Bernardo deitzen zena, eta haren izena aukeratu nuen. Gero, orain dela gutxi herritik pasiatzen nindoala, hainbeste apreziatzen nuen mutil hori ikusi nuen eta esan nion: "Adio, Bernardo!" Eta berak: "Ni ez nauk Bernardo, ni Kornelio nauk!". Benetan, Kornelio Atxaga izan behar nuke. Eta Atxaga, nire deituran artean, bi edo hiru aldiz daukat errepikatua. Badago beste arrazoi bat, jende aurreko bizitzan maskara

bat behar duzu, eta maskara hau izena izan daiteke. Ni, esaterako, Joxe Irazu bezala oso ixila naiz, eta Bernardo Atxagak hitz egin besterik ez du egiten.

—Zergatik agertzen dira hainbeste tristezia eta bakardadea zure liburuetan?

—Uste dut gai unibertsalak direla. Nik ez nuke nahi, baina beti gai tristeak ateratzen zaizkit. "Obabakoak" liburuan bakardadearen erreflexio bat egin dut, aztertu nahi izan dut zer den bakardadea. Guk, XIX. mendeko semeak garenez, bakardea zerbait sentimentala bezala erabiltzen dugu. Hori bakardade mota bat da, baina ba daude beste batzuk inportanteagoak: bakardadea, pentsaera bat ezin inon azaldu izatea da. Maskara bihurtzen zara. Badago beste bat, grabeena: lekuek duten eta antzematen den bakardadea, bakardade fisikoa, hau litzateke, esaterako: halako egoera bat, non despertadore batek konpainia egiten dizun. Bakardadea gai nagusia da.

—Zergatik "Bi Anai", eta ez "Bi anaia"?

—Broma bat da, Euskaltzaindarian adarra jotzeko. Nik ez dut sinesten inork erregularik jar dezakeenik. Batzuk behar dira, baina "Bi anai" edo "Bi anaia" jartzea "pecata minuta" da, nahiz eta batzuk eskandalizatu horregatik. Ez zait batere gustatzen gramatika. Ingalaterran ez dago Euskaltzaindaria eta bakoitzak nahi duen bezala idazten eta pronuntziatzen du.

—Bernardo Atxagak erabili du noizbait Jose Irazu pertsonai bezala?

—Ez, ez dut uste. Denok behar dugu eduki, asmo bezala, leku bat erabat sekretua (edo sakratua). Ez zaio inori esan behar dena norberari buruz.

—Arrazoi moral batek bultzatzen zaitu idaztera?

—Idaztea beti da arazo morala,



uste dut idazle guztiek daukatela munduari eta bizitzari buruzko eritzi ezkorra, pesimista. Eta horregatik hasten dira idazten. Literatura guztia da morala eta humoristikoa, morallena.

—Obaba, herri bezala, zer da zuretzat?

—Ez dago inon, nire buruan bakarrik. Ez da hainbeste leku bat, baizik eta leku bati begiratzeko modua, geografia imaginario bat da.

—Zergatik erabiltzen dituzu batzuetan hitz batzuk ingelesez?

—Kolare emateko. Urrutiratu egiten bada istorio bat, askoz ulergarriagoa egiten da. Poesiak behar du urrintasun bat.

—Zure liburuetan pertsonai asko ihesean agertzen dira, eta ihesa heriotzarekin erlazionatua agertzen da, zer esan nahi du honek?

—Gure kulturari ihesa gaizki ikusia egon da. Ihesarekin gauzen beste alde errebendikatzen duzu, eta batzuetan ez dago beste erremediorik. Ihes egiteak ez dauka prestijiorik, baina niri oso ondo iruditzen zait. Heriotzarekin erlazionatua? Ihesa eta fatalitatea gai unibertsala da, milaka urte ditu. Bestalde, normala da biak erlazionatzea, oso lehoi-giro batean bizi garela uste bait dut.

kirolak

Mondra, berriz positiboekin

Azkenengo garaipena, 2 eta 3 Hernaniren kontra lortu ondoren, Mondragon taldea sailkapenaren zazpigarren postuan ezartzen da, bi positiboekin. Golak, bi Ikerrek eta bat Garrok lortu zituzten.

Oso partidu azkarra eta polita izan genuen igandekoa, onenatarikoen artean, Urbina eta Iker gazteak nabarmendu zirelarik.

Astebukaeran partidurik egongo ez denez, aste honetan ostira-lean bakarrik entrenatuko dira jokalaria.

“Arrasate Kirolak” Esku-Baloi Taldeak partidu ona Arrateren aurka

Nahiz eta galdu (22-24), Arrasate Kirolak taldeak oso partidu ona izan zuen Arrate talde indartsuaren aurka.

Kontutan hartu behar da, bi taldeen arteko kategorია-maila ezberdina izateaz gain, “Arrasate Kirolak”eko bost jokalaria lesionaturik zeudela.

“Okendo Kirolak” Saski-Baloi taldeak galdu azkenengoarekin

Okendo Kirolak Saski-Baloi taldeak 73 - 64 emaitzaz galdu zuen sailkapenaren azkenengo postuan dagoen Beasaingo BKL taldearen aurka.

Okendo taldekoek egindako

jokua oso txarra izan zen, ahazteko modukoa.

Rugby: “Arrasate Kirolak” taldeak oraindik ez du galdu


Bere azkenengo garaipenari esker, 0-33 Irunen kontra, Arrasate Kirolak taldeak Euskal Ligara igotzeko aukera izango duenatariko bat izango da.

Esan behar da aurtengo txapelketako partidu guztiak irabazi egin dituela.

Oso partidu ona izan zen Irunen kontra jokatuakoa, aurrelariak bikain egon zirelarik.


ZORIONAK OPA DIZKIZUE ARRASATEAR GUZTIOI

FIAT UNO



KANPAZAR

Bizkaiko etorbidea, z/g - Tfnoa: 79 41 98 - ARRASATE
Arabako etorbidea, 4 - Tfnoa: 79 77 66 - ARRASATE



REGIDO

 Ordezko Piezak
Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11



KULTUR FISIKO ZENTROA


PAKO KARRETERO

Kontzeziño Kale Estalia
Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE

KLINIKA DENTALA

**Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7bis behea ARRASATE



Iturriotz,9 Tfnoa:799457

“Santamasak” Pilota Txapelketa bukatu da

Iraillean hasi zen ume eta gazteen pilota txapelketa hau joan zen larunbatean bukatu zen.

Guztira, aurten txapelketa hone-tan 360 partidu jokatu dira.

Maila ezberdinetan, honako hauek ditugu finalerara heldu ziren pilotariak:

Benjamin A: Finala: Rubia, 16-Murgoitio, 11.

Benjamin B: Saizar, 16-Lizaralde, 12. Hirugarren postuan, Moreno gelditu zen, eta laugarrena, Betzuen.

Alebin: Eneko Osinaga, 16-Zugasti, 13. Hirugarrena, Eraña, laugarrena, Altube.

Infantil A: Moreno 18-Josu Errasti, 11. Hirugarrena, Aranburuzabala; laugarrena, Altuna.

Infantil B: Lordi Zuazubiskar, 18-Igor Gonzalez, 13. Hirugarrena, Abarrategi, laugarrena, Etor Goikoetxea.

Prejuvenilak: Iñaki Korta, 18-Mikel Markos, 14. Hirugarrena, Jon Goikoetxea; laugarrena, Gorka Gonzalez.

“Barraskiloak” azkarrenak koadrila arteko krossean

Koadrila arteko “Santamasak” X. krossean “Barraskiloak” izeneko taldea suertatu zen irabazle. Esan behar, koadrila bakoitzean lehenengo bostek puntuatzen zutela.

Oso giro alaietan egin zen lasterketa, eta 50 atletak hartu zuten parte aurtengo edizioan.

Indibidual mailan, berriz, Pedro Zalama izan zen lehena. Honako hauek dira, kategoria ezberdinetan izandako sailkapenak:

Indibidual mailan: 1. Pedro Zalama (Barraskiloak); 2. Alfonso Luelmo; 3. Jesus Beloki.

Koadrila mailan: 1. Barraskiloak; 2. Txirrindulariak; 3. Oken-do.

7 urtetako haurren mailan: 1. Javier Coronado; 2. Asier Ibar-rondo; 3. Markel Elortza.

8 urtetako haurren mailan: 1. Eduardo Garcia; 2. Jokin Lazpiur; 3. Aitor Garcia.

9 urtetako haurren mailan: 1. Iker Zabarte; 2. Iban Martinez; Nesken mailan: 1. Itziar Ugarte.

10 urtetako haurren mailan: 1. Gorka Zubia; 2. Aritz Maillo; 3. Iker Uribeetxebarria. Nesken mailan: 1. Amaia Ramos.

11-12 urtetako haurren mailan: 1. Iñaki mayor; 2. Aritz Barrutiabengoa; 3. Aritz Lazkano. Nesken mailan: Amagoia Barrutiabengoa.

13-14 urtetako mailan: 1. Alex Saavedra; 2. Gabi Saavedra; 3. Iban Negreira. Nesken mailan: Ainhoa Ortiz.



Larunbatean, Iturripen Kirol Eguna

Aurtengo “Santamasak” jaien programaren barruan, aurten, lehenengo aldiz, Iturripen Kirol Eguna egingo da. Pilota, Esku-Baloi, Rugby eta Atletismo taldeek hartuko dute parte ekitaldi honetan. Ekitaldia goizeko 10etatik hasiko da, ordubatak inguruan amaitzeko. Kirolzale guztiak badute zita bat larunbat honetan.

TROKO

J A N T Z I D E N D A

Olarte, 6

ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua, 37

Tfnoa: 797300-8396

Telefax: 793412

Hemen
euskaraz ez dakienak
berak jakingo du
zergatik ez dakien.

Baina hemen
euskaraz ez dakienak
ez digu uzten
euskaraz egiten.

Baina eta hemen
euskaraz jakin arren
euskaraz mintzatzen
ez denak ere
ez digu uzten
euskaraz egiten.

Bitoriano Gandiaga.

ARRASATE
PRESS ek Santamas eta gabonetako jai
zoriontsuak opa dizkizue arrasatear guztioi.



Maldrilgo telebistak eman berria du Argentinako Buenos Aires-en duela gutxi izandako kontzertu bat. "Amnesty International"ek giza-eskubideen alde azken hilabeteotan munduan zehar egin duen biraren amaierako kontzertua, hain zuzen. Bertan partaide Youssou N'dour, Tracy Chapman, Peter Gabriel, Sting eta Bruce Springsteen. Kontzertu horrek sortarazi dizkidan burutazioak eman nahi ditut gaur hemen.

Esan dezadan, ezer baino lehen, kontzertuak hunkitu egin nauela, zirrara bizia sentiarazi didala. Eta eragin horren zergatiak neure buruari galdezka hasi natzaionean, musikaren beraren izateko arrazoiak eta gaurko gizartean bete dezakeen paperaz aritu naiz pentsatzen.

Kontzertu baten inguruko burutazioak

Bere sorreran, musika espresio-bide hutsa zen, hau da, barneminak edo pozak edo kezak adierazteko modua. Gizarte primitiboak, onomatopeiak eta ritmoak erabiliz, ehiza ona lortzeko edota sutondoan talde-zentzua indartzeko sortua izan daiteke musika. Bigarren aro batean, musikarako dohain berezia zuenak, trebezia hori landuz musika arte bihurtzeko lehen urratsak emango zituen. Hortik, musikari profesionalen inguruko parafernalia eta musika negozio bihurtzea.

Gaur egungo musikan, ezaugarri guzti horiek aurki daitezke: espresio-bide, arte, ogibide edo negozio bezala ikus daiteke musika gaur. Ez, ordea, beti partaidetza berdinarekin. Eta nik esango nuke, zoritxarrez gehienetan negozioarena dela ezaugarri nabarmenena. Pentsatu besterik ez dago zenbat diru

mugitzen den musikaren inguruan, zer-nolako prezioetan ordaindu behar diren diskak edota kantaldiak, eta zenbat interes ezkutuko erabili behar den izen bat edo diska bat arrakastatsu bihurtzeko.

Agian, horregatik hunkitu nau Buenos Aires-eko kontzertu horrek, musikaren zentzurik primitiboena berreskuratu duelako. Bertan parte hartu duten kantariak, arazo ekonomiko eta artistikoak bigarren mailan utzi eta ideia batzuen alde -zuzenak edo okerrak diren ez dit orain axolalaritu direlako. Eta musikaren bidez, beren arteko kidesuna eta mundu osoko milioika entzuleen arteko talde-zentzua indartzeko edo berpizteko gai izan direlako.

Kontzertu hori ikusi eta entzun ondoren, maiteago dut musika.

Mikel Irizar

ENTZUN GAITUZUE?
BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

OSORIK

GIRORIK

ONENA!!

LORATEGI

Kafetegia

**Zorionak opa
dizkizue !!**

O S T A R K U D A N T Z A L E K U A

Hezurak astintzeko lekurik aproposena

Uribarri Etorbidea 8

Mazapana eta turroia

Arrasateko Onaindia gozotegian jasotako errezetak ditugu gaurko hauek:

1. Mazapanezko iruditxoak

Osagaiak: Libra bat almendra xehe.

Libra bat azukre.

100 gramo ur.

Oblea, laberako.

Almendra xehea eta azukrea ondo nahastu ondoren, ura gehitu eta nahasten jarraitu. Iruditxoak egin, oblea gainean jarri eta 12 minututan labean eduki 250 gradutan. Eta kito!

2. Turroia (biguna)

Osagaiak: Aurreko osagaiak neurri berean.

Azukrea eta ura egosi 118 gradutara iritsi arte*. Ozten utzi eta almendrak nahastu. Oso berotan, nahasketa gaitzago gertatzen da.

Bota molde batera eta 24 ordu utzi. Moztu eta jan.

*Zein momentutan iristen den 118 gradutara jakiteko, bitsadera edo espumadera sartu egositako azukre-uretan, putz egin eta globotxoak ateratzen badira, orduantxe puntuan.

Morokil Taldea

ZIZKA-MIZKAK

Txarria gora, txarria behera.

Txarri errifa dela-eta, ideia bat. Deskuidoan txarria tokatzen bazaizu eta pisuan bizi, gordetzeko lekurik egokiena komuneko bainuntzia duzu.

Azken orduko albistea.

Revilla tarta famatuaren osagai bat ja badakigu: TXO-KOLATEA.

Jan eta jan.

Sta. Luzia eta Sto Tomas egunetako feriatan erositako jeneroak on dagizula.

Eta Gabonetan gure errezetekin prestatutako zertxobait, utzi Olentzerorentzat.

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

GURE AMETSA JATETXEA

- * bodak
- * banketeak
- * negoziotako otorduak

EGUBERRI ON ETA URTEBERRI OPAROA
DESIO DIZUE

GATZAGA



Torre Auzo, 9
Tfnoa: 943/781956 OÑATI



omu, s.l.
mosaikoak

ZERAMIKA-ERAKUSKETA

Otalora, 1 - behea
Tfnoa: 79 07 20

Eguberria eta gure janariak

Hementxe ditugu aurtengo Eguberri jaiak eta beti bezala familiakoekin elkarturik mahai inguruan ospatuko ditugu: Gabon gaueko afaria, Eguberri eguerdiko bazkaria; gero, Urte zaharra dator bere afariarekin eta Urte Berria bazkari ederrarekin... jatordu handi gehiegi, dudarik gabe, eta janari ugariekin gainera.

Benetan zaila gertatuko zaigu sukaldean oreka lortzea egun hauetan; alde batetik, ilargiraino igotzen bait dira prezioak; bestetik, hor daude ohitura zaharrak eta horiek ez ditugu aldatu nahi...

Neurriak ondo hartzea, ez da gauza erraza izango, etxeoandrearantz ez bait dira betikoak, ez neurriak ez mahaikideen kopurua ere;

horrelako ospakizunetan ez dugu eskas geratu nahi izaten, hobe sobratzea, eta horrek ere, gehiago jatera bultzatzen gaitu.

Ohituak gaude, gaizki ohituak, jakina! garestiena erosten; honek ez du esan nahi onena erosten dugunik... Agian, adi ibiliko ginen eta janariak onak eta merke zeudenean egingo genituen erosketak eta hozkailuan izango ditugu gordeta; baina horrela ez bada, ondo begiratzea komeni da erosi aurretik.

Ikus ditzagun egun hauetan kontsumitzen ditugun janari batzuek ematen dizkiguten kaloriak:

- Aza 310 kaloria/razioko
- Bakailoa 140 K/razioko Bixigu errea 420 K/r

- Otarraiskak 310 K/r
- Maionesa 100 K/goilarakadako
- Bidots errea 690 K/r
- Sagar konpota 440 K/r
- Turroia 400K/100 gr


Alkoholarekin hartzen ditugun kaloriak gehitu behar dira, gainera:

- Ardoa edalontzi bat 60 K.
- Txanpan goxoa kopa bat 125 K.
- Txanpan lehorra kopa bat 90 K.

Beraz, nabarmenak dira egun hauetako gehiegikeriak; jaiak pasatakoak konpondu beharko ditugu. Bitartean, ondo igaro.

*Eukeni Olabarrieta
Arantza Lizaso*

Erdiko kalea: 791937



Ferrerías: 798762

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR AUZOA

BERGARA, Tfnoa: 76 22 68

OLAOSTE

KIROLAK

Zorionak opa
dizkizue
Eguberrietan

Bizkai etorbidea 10
Tfnoa: 79 65 34



- * Betaurrekoa moda da
- * Betaurrekoa premia da
- * Betaurrekoa da oparirik hoberena

**Zorionak eta urteberri on opa
dizkizuegu arrasatear guztioi**

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- San Biatorreko irakasle bik pisu bat alokatu behar dugu. Deitu bazkalorduetan: - Tere: 94-4625909.-Julu: 94-4676767.
- Pisu bat salgai Aretxabaletan. Bedarretako S.Migel kalea,11-1 ez.
- Pisu bat alokatu behar dut Arrasaten. 94-4359334. (Mari Karmen).
- Pisu bat erosi edo alokatu nahi dut. Presazkoa. Tfnoa: 4372223.
- Etxebizitza indibiduala salgai. 2 solairu eta 22 m² tako lurra inguruan. Tfnoa eta altzariekin. Hondarribia kalea. Interesatuak dei 796591ra.— Prezioa elkarrekin erabakitzekotan—.
- Pisu bat salgai herri erdian. Izagirre plaza,4. Bainugela, 2 logela, egongela, ganbara. Informazioa: 794218.
- Eguzki Dorrean: pisu bat salgai. 3 logela, egongela, bainugela, 2 logela, ganbara.796765.
- Pisu bat salgai Arrasaten. Etxe Oste kalea, 6-2.D. 3 logela, egongela, jangela, 2 bainugela, sukaldia, garajea, ganbara zabala eta berokuntza sistema indibiduala.
- Kontsultategirako lokal bat salgai. (100m² baino gehiagokoa). 797632.
- Merkataritzarako lokal bat salgai. (100m² baino gehiago). Tfnoa: 797632.
- Alokatzeko pisua behar da Arrasaten. Tfnoa:793952.
- Garaje - toki itxi bat salgai Villanparon. Galdetu gauetan 795528 telefonora.
- Leku onean, pisu bat alokagai: 3 logela, egongela, jangela, sukaldia eta bainugela. Balkoiak ere baditu. 795392.

- Altzariak dituen pisu bat salgai. Maitena kalea, Arrasate. 140m². Sukaldia, egongela, 2 bainugela, 3 logela, kristaleria bikoitza. Propanozko berokuntza. Hari musikala. Garaia (14m²). Tfnoa: 795058.
- Pisua salgai Arrasaten. Deitu laneguetan, goizeko 9etatik 12etara. 791011. Juan Jose Alkala.
- 60m²tako lonja bat alokagai, 30m² ditu behaginean; egokia biltegi, bulego, etab.etarako. Baditu argindarra eta ura. Erguin auzoan. 791114. (gaueko 9etatik 10etara).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Tfnoa: 796845.
- Pisua salgai, Nafarroa 8 - 4 esk. Aretxabaleta.
- Baserria erosi nahi dugu Arrasate inguruan. Saltzekorik baduzu telefono honetan aurkituko gaituzu: 751878. Abelardo galde ezazu (Goizez mesedez, 8etatik 14etara)
- Garaje plaza hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799511 (Pello Barrutia. Fagor).
- Pisua hartuko nuke errentan. Tfnoa: 799525 (gauetan).
- Pisua salgai Aretxabaletan. Hobe-kuntzekin. Tfnoa: 794338.
- Ume bateko familiak pisua hartu nahi du errentan Aretxabaletan 18 hilabete-tarako. Interesatuak dei 797029 telefonora.
- Injineritzako 3garren urteko ikasleak pisua nahi du taldean bizitzeko. (945) 225661.

LANA

- Esperientziadun neska batek etxeko garbiketak eta umeak zaintzea bezelako lanak egingo lituzke. Tfnoa. 796190—799420.

- 25 urteko neska ezkondu batek etxeko lanak edo antzerakoak egingo lituzke orduka arratsaldetan. 798634. Tere.
- 16-21 urte bitarteko neska bat behar da, Arrasaten umeak zaintzeko. Nahitaezkoa euskaraz hitz egitea.
- Esperientzia duen neska prest dago etxeko garbiketak eta umezaintza bezalako lanak egiteko. Tfnoa: 796120.
- Neska prest dago asteburuetan umeak zaintzeko. Tfnoa: 791890 (Josune).
- Lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten. (Elena 763590).

SALEROSKETAK

- HI-FI ekipoa salgai. Garantia du. Philips markakoa. MiDi motakoa bere altzariarekin. Merke. Aramaiona kalea 4,5.D. Galdetu Fabirengatik 2etatik 5etara edo 8etatik aurrera.
- Portaeskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 790900 (Jose Felix).

IRAKASKUNTZA

- Mantenimendu gimnasia, Erguin ikastetxean. Orduetgia 7etatik 8etara. Informazioa 798072 (Jose).
- Ingeleseko klaseak ematen dira, talde txikitan, egun osoan zehar. Tfnoa: 791870.

ETA BESTE

- Ikasle bat behar da Bilbon pisu bat osatzeko. (Udaletxearen inguruan, 3 gela indibidualak).
- Masaialaria Arrasaten. Masaiaria terapeutikoan diplomatua Uribe 16, 2.a ezker. Informazioa 797655 (Ines. 8etatik 10etara).

✂

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN
JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

Zeharkale Estalia 1, 1. b 20500 - ARRASATE - Tfnoa: 79 71 64

†


RICARDO BENGOETXEA GIL

(Jaunak zeruan izan beza)
 Abenduaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Bere emaztea, Rufina; seme-alabak, Koldo eta Miren; iloba, koinatu-koinata, loba, lehengusu, eta gainerako ahaideak, gertaera triste honen berri ematen, Jesusek esanaz oroitzen dira: "Neu naiz biztuera eta bizia, niregan sinisten duena, hilik ere, biziko da". (Jn. 11:25)

Bergaran, 1988ko Abenduak 15

B · O · L · U



*Gorputzak
eskatzen dizu.*

Eguberri-jai zorientsuak eta urteberri on opa dizkizue BOLU gimnasioak arrasatear guztioi !!!

Zeure etxerako kalitatea, nahi duzunean,
gogoan izan

GIROA **arotzak**

Zuk zeure etxean bizi-kalitaterik onena izateko
saiatzen gara

- * Sukaldeko altzari integralak
- * Armairu landatu edo orman sartzekoak
- * Barne-ateak
- * Ate blindatuak
- * Oholtza edo tarima beteak
- * Parket flotagarriak
- * Itxitura hermetikoxko lehioak (irtenberri-berriak!!)

ZABALDU BERRIA DUGU !!!

Iturriotz, 14. ARRASATE

EZEZAGUNARI

GAUAK NIRE IZAERA AHULA ESTALI DU,
EZEZTATU.

ETA ZURE IZENA AIPATU DUT.

NIRE AHULDURA AREAGOTU EGIN DA,
HANDITU.

ETA ZURE IZENA AIPATU DUT.

ZURE IZENA AIPATU DUT.

IZENA,

AIPATU DUT.

ILUNAK NERE OHIU ANTZUA IXILERAZI DUEN ARTE.

KALE EURITSU HARTAN IKUSI ZINTUDAN LEHENENGO ALDIZ,
bakarrik.

BLUSA TXURI FIN BATEK ZURE DITIBURU LARROSAK ZITUEN ESTALTZEN,
leunki.

ILEA SORBALDAN BEHERA ERORIA ZENEUKAN,
bustia.

ETA NOLABAIT EBOKAZIO HONEN SUJETUA IZATEA ESKAINI DIZUT,
ezinbestean.

EZ NINTZELAKO ZURE PAUSOAK JARRAITZEN AUSARTU,
euripean.

HAIZEAREN EZTENKADA ZITALEK BORTIZKI LAZTANDU DUTE
ENE GELAKO LEHIO BAKARTIA, GAUA ERDIBITUZ.

OHEKO BURUSI NAHASIEN ARTEAN BILATU NAHI IZAN ZAITUT,
EZ ZAITUT AURKITU.

ETA BERE MAGALEAN IRENTSI DU ZURE OROIMENA.

Aitor Urzelai 1988ko AEDren Poesia Lehiaketako akzesita

Libururik salduenak

HIRE, GORABEHERA eta ZABALETA liburudendek emandako datuen arabera, hauek dira 1988 urtean zehar Arrasaten gehien saldu diren euskal liburuak:

•HELDU ETA GAZTEen Literaturan, ATXAGA (Bi anai, Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian...), ANDU LERTXUNDI (Tristeak kontsolatzeko makina, Tobacco Days...), SARRIONANDIA (Narrazioak), SAGASTIZABAL (Paixibo)...eta gutxiago bada ere, Etxaide (Markesaren alaba), Garate (Izurri berria),

Gereño (Nobela laburrak), etab.

•HAURren Literaturan, PAKO ARISTIren "Zazpi pirata baltsa batean", eta ELKAR Argitaletxearen PERKAX Sailekoak (KOTTI, Joxantonio Ormazabal; ERRUSIKA, Mariasun Landa...), ITZUL Sailekoak (NIKOLAS TXIKI...), etab.

•Gai ez-literariotan, HIZTEGIA-80, EUSKARAKO HIZTEGIA, ERDARAKADAK (G. Garate), Kalakari, Baietz, Atalase maila, etab.

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturrioz, 4 - Tfnoa 79 14 84

BAZAR
TOKI ON

**Elektronika artikuluen
salmenta**

Gabonetako merkealdi izugarriak

J. Carlos Guerra, 1 - Tfnoa: 799164

ETB programazioa

ABENDUAK 23, OSTIRALA

- 13.32 AURKEZPENA
 13.34 *BANAN BANAN, Haurrentzako saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.20 HARAN HANDIA, Telesaila 16.kapitulua.
 15.10 II. TXANDA: LAINO GUZTIEN AZPITIK
 16.10 GABONETAKO ZINEA: "NIK SOMATZEN DUDANA IKUSIKO BAZENU"
 Zuzendaria: Eric TILL
 Antzezleak: Marc SINGER, R.H. THOMPSON, Sarah TORGOV
 18.00 POLI, Haurrentzako saioa
 18.10 PEDRO ETA PABLOREN SHOW BERRIA, Marrazki bizidunak
 MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
 DR.SLUMP, Marrazki bizidunak
 19.05 ONGITIRABILIBIRA
 19.20 DAVID BALFOUR-EN ABENTURAK, Telesaila
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 21.00 IBIZA 92
 22.00 FAHRENHEIT
 23.00 GAUR EGUN, Albistegia
 23.15 KIROLEZ KIROL
 00.00 AMAIERA

ABENDUAK 24, LARUNBATA

- 11.28 AURKEZPENA
 11.30 *PAUSOKA
 12.30 DENBORA PASA
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.15 URREZKO HIRI MISTERIOTSUAK, Marrazki bizidunak
 14.45 BATMAN, Telesaila
 15.10 SPORT AUTO
 16.05 NAHI DUZUN GUZTIA, Haurren programa berezia.
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 20.50 FILMAKETA: ROGER RABBIT
 21.50 SALBATU HAURRAK
 22.10 GAUEKO PELIKULA: "SCARAMOUCHE"
 Zuzendaria: George SICNEY
 Antzezleak: Stewart GRANGER, Eleanor PARKER, Janet LEIGH
 00.05 AMAIERA

ABENDUAK 25, IGANDEA

- 11.48 AURKEZPENA
 11.50 EGI BIDEAN
 12.00 MEZA SANTUA
 13.05 HITZETIK HORTZERA, Bertso saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.15 ABESBATZAK
 15.00 HARRIKETARRAK, Marrazki bizidunak
 15.25 BAZKAL OSTEKO ZINEA: "IITOA"
 Zuzendaria: Mervyn LeROY
 Antzezleak: Jean FRANVAL, Stephen HIRST, Louise COOPER
 17.45 TARZAN, Telesaila
 18.30 *FILMAKETA: ROGER RABBIT, Dokumentala
 19.25 FALWTY-KO DORREAK, Gabonetako saio berezia.
 20.00 CINCINNATTI, Telesaila
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 20.55 ST.ELSEWHERE OSPITALEA, Telesaila
 21.50 KIROLEZ KIROL
 23.20 AMAIERA

ABENDUAK 26, ASTELEHENA

- 12.58 AURKEZPENA
 13.00 *KIROLEZ KIROL, Kirol saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
 15.10 II. TXANDA: IBIZA 92, Musika saioa
 16.00 GABONETAKO ZINEA "HOSTOEN ERORKETA"
 Zuzendaria: Otar IOCELLANI
 17.40 GEORGAR AROKO ETXEA, Telesaila
 18.10 POLI, Haurrentzako saioa
 18.20 YOGIREN TALDEA, Marrazki bizidunak
 MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
 CHARLIE BROWN, Marrazki bizidunak

- 19.05 GALDE DEBALDE
 19.40 MAGNUM, Telesaila
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 21.00 DALLAS, Telesaila
 21.55 EZBAIAN, Eztabaidarako saioa
 23.00 GAUR EGUN, Albistegia
 23.15 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
 23.30 AMAIERA

ABENDUAK 27, ASTEARTEA

- 13.28 AURKEZPENA
 13.30 *GALDE DEBALDE, Haurrentzako saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
 15.10 II. TXANDA
 16.10 GABONETAKO ZINEA: "BLACK JACK" (1979)
 Zuzendaria: Kenneth LOACH
 Antzezleak: Jean FRANVAL, Stephen HIRST, Louise COOPER
 18.00 GEORGAR AROKO ETXEA, Telesaila
 18.30 TXIMELETA UHARTEA, Telesaila
 19.30 PAUSOKA, Haurrentzako saioa
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 21.00 BAKEGILEA, Telesaila
 21.50 KATU KALE, Musika saioa
 23.00 GAUR EGUN, Albistegia
 23.15 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
 23.30 EGI BIDEAN
 23.40 AMAIERA

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

- 13.28 AURKEZPENA
 13.30 *ONGITIRABILIBIRA, Haurrentzako saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
 15.10 II. TXANDA: ABESBATZAK
 15.55 GABONETAKO ZINEA: "OTSO GAIZTOA" (1975)
 Zuzendaria: Tolkomush OKEIEV
 Antzezleak: Suimenkul CHOKMOROV, Aliman DZANGOROSOV, Kambar VALIEV
 17.25 GEORGAR AROKO ETXEA, Telesaila
 17.55 POLI, Haurrentzako saioa
 18.05 IPUN SAIOA, Marrazki bizidunak
 MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
 DONKEY KONG, Marrazki bizidunak
 TELETXIP
 19.35 ROBIN HOOD, Telesaila
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 21.00 ZINE PANTAILA: "HAMAR AGINDUAK" (1956)
 Zuzendaria: Cecil B. DeMILLE
 Antzezleak: Charlton HESTON, Yul BRYNNER, Anne BAXTER
 00.30 GAUR EGUN, Albistegia
 00.45 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
 01.00 AMAIERA

ABENDUAK 29, OSTEGUNA

- 13.28 AURKEZPENA
 13.30 *TELETXIP, Haurrentzako saioa
 14.00 GAUR EGUN, Albistegia
 14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
 15.10 DOKUMENTALA
 15.50 GABONETAKO ZINEA: "DIAMANTEAK AUKERAN" (1968)
 Zuzendaria: Giuliano MONTALDO
 Antzezleak: Janet LEIGH, Edward G. ROBINSON, Robert HOFFMAN
 17.30 SKY, Telesaila
 17.55 OZTOPOAK GAINDITUAZ, Dokumentala
 18.10 POLI, Haurrentzako saioa
 MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
 KAIKO SANDYBELL, Marrazki bizidunak
 19.10 GILEN TELL, Telesaila
 19.40 DENA ETA EZER EZ, Telesaila
 20.30 GAUR EGUN, Albistegia
 21.00 LAINO GUZTIEN AZPITIK
 22.00 GILLERMINA EDERRA, Telesaila
 23.00 GAUR EGUN, Albistegia
 23.15 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
 23.30 AMAIERA

N	I	N	O	Z	A	R	A	K	R	A	N	K	O	U
T	A	N	U	I	E	N	G	D	L	L	F	U	A	S
A	N	B	E	D	O	Ñ	A	O	A	E	R	N	I	M
F	U	J	M	N	L	E	I	D	R	U	N	S	K	A
B	J	K	I	I	D	D	K	Ñ	M	U	D	O	T	S
B	K	D	F	E	N	R	I	T	B	X	Z	M	O	P
F	E	H	E	E	J	K	I	O	N	E	A	K	O	K
R	U	J	M	F	H	I	D	E	D	Z	L	O	R	O
A	X	P	E	A	N	T	Z	A	M	T	A	L	I	K
P	P	U	T	E	R	R	K	E	S	O	D	O	M	O
U	S	U	T	R	U	I	L	U	M	U	Z	A	A	R
T	A	P	I	K	E	A	N	T	X	A	T	A	A	B
K	M	N	T	Z	S	F	I	E	K	O	P	L	M	E
G	A	I	K	O	M	M	B	U	E	A	Ñ	M	S	R

ESAERA ZAHARRAK, ZALDIZ:

	REN	SU	DU
NA	MUN	DA	
ON	SA	A	NA
	SU		O ←

HITZA ASMATU:

Asmatu beharreko hitz hau "Egur Landua" adierazteko erabiltzen dugu.

Ondoren ematen dizudan zerrendako hitzetan, zuk asmatu beharrekoa osatzeko behar dituzun hizkiak daude. Bakoitzetik hartu behar duzun hizki kopurua bertan dago adierazia.

HOTZ - 1
MALURA - 3
LEMA - 1
ZOPA - 2
ZUMALAKARREGI - 4

HOROSKOPOA



ARIES
(Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra)

Lanpetuta ibili zara azkenaldi honetan. Eskerrak laster gabonetako oporrak izango dituzula Ligatzeko dituzun aukera guztiez baliatzen ikasi behar duzu. Beti ez duzu suerte txarra izango.



TAURUS
(Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra)

Bidai ederra egiteko dirua bai, baina denbora ez. Dena den, etxetik atera beharrean zaude eta mendia gertu asko daukazu. Kontuz eztarriarekin.



GEMINIS
(Maiatzaren 21tik
Ekainaren 21era)

Sukaldaritzari dagokionean zein trebea zaren erakusteko momentu aparta duzu hau, zure ingurukoek nahi duzuna egiten utziko dizute eta.



CANCER
(Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra)

Erosketak, inbertsioak eta beste zenbait diru-kontu izango dira zure kezka nagusiak. Utzi alde batera kalkuluak. Izerdiak mesede egiten dizu.




LEO
(Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra)

Egunotan aldakortasunerako joera izango duzu; eta ondorioz, ezingo duzu epe luzerako planik egin. Noizean behin algararen bat botatzeak ez dizu kalterik egingo.



VIRGO
(Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra)

Amodioari dagokionean, zure harremanak gero eta hobekak dira, eta aspertzeko arriskua uxatu egin duzu.



LIBRA
(Irailaren 24etik
Urriaren 23ra)

Aspaldi honetan inork ez dizu hitz goxorik esaten, badirudi denak haserre daudela zurekin; hilabete honetan horrelaxe jarraituko duzu; horregatik, askotan, triste egongo zara.



SCORPIO
(Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra)

Zure lagunek eredutzat hartuko zaituzte, prestijioaren eta zorionaren artean aukeratu beharrean zaude. Bidaiatxoren bat egiteko aukera izango duzu.



SAGITARIUS
(Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era)

Zure bihotzeko horrek benetan zer sentitzen duen jakin nahi baduzu, zuk zeuk eman beharko duzu lehenengo pausoa, baina horrek, nahi ez duzuna entzuteko arriskua dakar.



CAPRICORN
(Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra)

Orain arte denbora gehiegi egin duzu zeure buruarekin hizketan; orain, berriz, baikorrako eta harremanetarako hobeto sentitzen zara.



AQUARIUS
(Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra)

Pertsona zoragarri bat ezagutuko duzu, elkarrekin orduak eta orduak emango dituzue eta behar bada hitzak baino zertxobait gehiago sortuko da zuen artean.



PISCIS
(Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra)

Ez da etxean gelditzeko momentua, kalera irtetzekoa baizik; gainera, etxekoekin ez zara hain ondo konponduko bolada honetan.

☞ Zenbat ezkontza egin diren Arrasaten azken urtean

Azken hamabi hilabeteetan (87ko Abenduaren 1etik 88ko Azaroaren 30era) 49 ezkontza izan dira Arrasaten. Horietatik 27 elizaz egin dira eta 22 zibilez.

Orain hamar urte 100 ezkontza ospatu ziren, horietatik zibilak 6 bakarrik izan zirelarik. Bi ondorio nabarmendu daitezke beraz:

- 1) Hamar urte hauetan ezkontzak %50 gutxitu dira.
- 2) Ezkontza zibilak %6tik %45era igo dira.

☞ Bikoteek zein eleiza nahiago duten ezkontzeko

Ezkontza kanonikoak ospatzeko, ezkonkideek norbere auzoko elizatzkoa aukeratzen dute.

Horrela 27 ezkontzatatik 5 San Isidron, 4 Santamañan, 4 La Merced Ikastetxean, 3 San Juan parrokian, 2 Garagatzan, 2 San Andresen, 2 Uribarri eta bana Udalan, San Balerion, San Frantziskon eta Ospitaleetan ospatu ziren.

☞ Zein egoera zibiletan ezkontzen diren

Ezkondu diren 98 pertsonetatik 95 solterotzatik iritsi dira ezkontzara, 2 dibortziatuak ziren eta 1 alarguna.

☞ Zein den ezkontza adina herrian

Bataz besteko ezkontz adina 28 urtekoa izan da gizonezkoetan eta 26 urtekoa emakumezkoetan, duela 10 urte, hurrenez-hurren, 26 eta 24 urtekoa zelarik.

Ezkondu den gizonezko gazteenak 22 urte zituen eta emakumezko gazteenak 18. Zaharrenak, berriz, gizonezkoetan 45 urte izan du eta emakumezkoetan 59.

☞ Normalean bikotean zehin den zaharragoa

Berrogeitabederatzi bikoteetatik 34ren kasuan mutila neska baino zaharragoa zen; sei kasutan aldiz adin berean ezkondu dira; eta, beste 6 kasuetan emakumea gizona baino adintsuago.

Berrogeitabederatzi ezkontza hauetako hogeitamaika kasutan ezkonkide biak arrasatekoak ziren eta beste hamazortzi kasuetan, aldiz, bata ez bazen bestea, kanpotarra.

ARRASATEKO UDALEKO KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA

**EGUBERRIETAKO
ORDUTEGI BEREZIA**



Abenduak 22	-	Santo Tomas	-	Itxita
Abenduak 24	-	Eguberri bezpera	-	9etatik 14etara zabalik
Abenduak 31	-	Gabon zaharra	-	Itxita
Urtarrilak 1	-	Urteberri eguna	-	9etatik 14etara zabalik
Urtarrilak 6	-	Errege eguna	-	Itxita

Eguberri-jai zoriontsuak eta urteberri on opa dizkizue AUKEAk arrasatear guztioi !!!